

## **2/89 ZIRKULARRA, abuztuaren 3koa, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Gizarte Segurantza Zuzendaritzarena, BASEei atxikitako aurreikuspen planen izendatzeari buruzkoa**

BASEetan hainbat talde sar daitezke, bai enpresak bai bazkideak. Bestalde, hainbat aurreikuspen-plan indibidual ere sor daitezke, bazkideari dagozkion eskubide proportzionalak eratzeko moduak (ekarpenak eta lortutako errentagarritasunaren arabera) edota kapitala edo errenta, nahiz biak, prestazio gisa emateko moduak kontuan hartuta.

Hortaz, aurreikuspen planen izenak beste BASEetakoekin nahas ez daitezen, zuzendaritza honek honakoa xedatu du:

- 1) Enplegu-planek eta plan elkartuek honako espezifikazioak eduki beharko dituzte:
  - a) Enplegu-planak: izenaren hasieran BASEaren izena izan beharko dute, gero “Aurreikuspen Plana,” eta ondoren “... enpresako langile-taldearena”.
  - b) Plan elkartuak: izenaren hasieran BASEaren izena izan beharko dute, ondoren “Aurreikuspen Plana,” eta gero “... taldearena”.
- 2) Banakako planek hurrengo espezifikazioak izan beharko dituzte:

Izenaren hasieran BASEaren izena izan beharko dute, ondoren “Banakako Aurreikuspen Plana”, eta jarraian, hala badagokio, plan-modalitate bakoitzaren ezaugarrien deskribapena.
- 3) Aurreikuspen planen izenak BASEarenarekin bat etorri beharko dute.
- 4) Aurreikuspen planek ezingo dute izan beste BASE baten izen berdina.

*Vitoria-Gasteiz, 1989ko abuztuaren 3a*

**GIZARTE SEGURANTZA ZUZENDARIA**

*Pedro María de la Torre*